



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA  
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C  
Tel: 948 76 43 75  
junta@aezkoa.net  
valledeaezkoa@gmail.com  
www.aezkoa.org

Ariben, 2023ko irailaren 28an, eguerdiko ordu batean, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura berezia eta premiazkoa egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

**BILDUTAKOAK**

**Batzarreburu jauna:** Karlos Bueno Reka

**Batzarrekide jaun/anderak:** Sres/as – Galarza Larrayoz, Maria Carmen - Merino Iriarte, Juan Esteban

**LEHENA.- BILKURAREN PREMIA BERRESTEA.**

Jakinarazi da bilera honetara deitu behar izan dela, digitalizatzeko lanen esleipena lehenbailehen egin behar delako; izan ere, lanak egiteko epeak oso laburrak dira, eta ezin da datorren asterako aurreikusitako bilkura arruntera arte itxaron. Aho batez berretsi da premia, eta gai-zerrenda aztertzeari ekin zaio.

**BIGARRENA.- AEZKOAKO DIGITALIZATZE OBRAK ESLEITZEA**

Behin bukatuta Kontratazio Atarian Aezkoako digitalizatzeko obren kontratua esleitzeko iragarkian zehaztutako epea, hiru enpresa erregistratu ziren, eta bi proposamen aurkeztu zituzten, lizitazioaren PLENA espedientean agertzen denaren arabera.

- Construcciones A. Bengoetxea B31619208 – proposamena aurkeztu zuen.
- Sisnet Nuevas Tecnologías SL B71024384 enpresak proposamena aurkeztu zuen.

Dokumentazio orokorra ireki zen, 1. gutun-azala (administrazio-agiria) hain zuzen ere, eta ikusi zen Sisnet enpresak aurkeztutakoa osorik zegoela. Bengoetxea enpresak, aldiz, lizitatzailerak identifikatzeko I-A eranskina aurkeztu zuen, baina ez zituen I-B, II-A, II-B eta II-C eranskinak aurkeztu.

Azaldutakoagatik, lizitazio-plataformatik errekerimendua bidali zen, jakinarazpena egiten zenetik gehienez ere 5 egun naturaleko epean, kontratazioa arautzen duten administrazio-klausulen pleguan agertzen den dokumentazioa aurkez zezan. Dokumentazio hori abuztuaren 24an aurkeztu zuen enpresak. Abuztuaren 25ean proposamen teknikoak ireki ziren, eta kontratazio-mahaiko kide teknikoek berrikusi eta kalifikatu egin zituzten. Balorazioak eta kalifikazioak kontratazio-mahaiaren aktaren eranskin gisa daude.

Hau da lortutako puntuazioen laburpena:

	Memoria teknikoa Gehienez, 25	Obra plana Gehienez, 10	Gizarte irizpideak Gehienez, 25	GUZTIRA Gehienez, 45
Bengoetxea	8	5	10	23
Sisnet	22	8	10	40

Puntuazio horiek lizitazio-plataformara helarazi ziren 2023ko abuztuaren 29an eta, jarraian, eskaintza ekonomikoa irekitzeko ordua jarri zen: egun bereko 13:00etan hain zuzen ere. Kontratazio Atarian iragarri zen. Formula bidez ebalua

zitezkeen eskaintzak ireki ondoren, honako puntuazio hauek lortu zituzten, 248.418,47 €-ko lizitazio-aurrekontuaren gainean, BEZik gabe.

- Bengoetxeak aurkeztutako eskaintza: 245.934,28 €
- Sisnetek aurkeztutako eskaintza: 223.734,00 €

	Eskaintza ekonomikoa Gehienez, 50 puntu	Berre epea Gehienez, 5 puntu	GUZTIRA Gehienez, 55 puntu
Bengoetxea	45,49	0	45,49
Sisnet	50,00	5	55,00

Lortutako puntuazioak, guztira:

	B gutunazala - subjekt Gehienez, 45 puntu	C gutunazala - formulak Gehienez, 55 puntu	GUZTIRA Gehienez, 100
Bengoetxea	23,00	45,49	68,49
Sisnet	40,00	55,00	95,00

Mahaiak Sisneti esleitzea proposatu du, 95 puntu lortu baititu. 223.734,00 euroko eskaintza ekonomikoa egin du, hau da, lizitazio-preziora % 9,936 jaitsi du.

Gutun-azal guztien baremazioa amaitu ondoren, Mahaiak erabaki du, kontratazioa arautzen duen baldintza-agirian ezarritakoaren arabera, esleipen-proposamenaren berri ematea lizitatzailerari, baldintza-agiriko 14. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez dezan.

Irailaren 6an, enpresak eskatutako dokumentazioa aurkeztu du, eta, beraz, esleipen-erabakia hartu behar da.

Osoko Bilkurak, espedientea eta kontratazio-mahaiaren proposamena aztertu ondoren, Aezkoako digitalizatzeko obra-kontratua SISNET SL enpresari esleitzea erabaki du, 223.734,00 eurokoan, BEZik gabe, eta kontratazioa arautzen duten baldintzak eta esleipendunak aurkeztutako eskaintza betetzearen mende.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan xedatutakoaren arabera, adjudikazioaren eraginkortasuna eten egingen da hamar egun naturaleko epean, adjudikazioaren jakinarazpena igortzen den egunetik zenbatzen hasita, salbu eta prozeduran interesa duten pertsona guztiek esanbidez uko egiten badiote Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian erreklamazio bat aurkezteari, eta, horren ondorioz, etete-epea lehenago amaituko da, eta prozedurarekin aurrera jarraitu ahal izanen da. Enpresa interesdun guztiek uko egin diotela jasota dagoenez, esleipenaren berri emanen zaio SISNET enpresari, eta dagokion kontratua sinatuko da.

Eta aztertzeko gai gehiago agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko eguerdiko ordu bat eta erdietan. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.